

ANOETA. Herritarren Txartel Elektronikoa bultzatuko du Udalak.

Interneten bitartez hainbat administrazioekin harremanak burutzeko aukera ematen du Izenpek kudeaturiko txartelak

Imanol Garcia

Herritarren Txartel Elektronikoa (HTE) aurkeztu zuten atzo Anoetako KZgunean Fidel Azpiroz alkateak eta Txomin Alkorta Eusko Jaurlaritzako KZgunea proiekturaren zuzendariak. Udalak txartel hori bultzatuko du eta Azpirozen esanetan, gauza berria eta pauso interesgarria da; udaletxera joan gabe, internet bitartez Udalarekin zerikusia duten edozein kontsulta egiteko.

Txomin Alkortak, bere aldetik, herritarrak txartel honen erabilerara ohitzen joatea komeni dela esan zuen eta helburua udalek, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituzten zerbitzuak txartelaren bidez gauzatzea dela. Edozein udaletan, handi nahiz txiki, aukera hori izatea garrantzitsua da, zioen Alkortak. Anoetari dagokionez, berritasuna, kiroldegiko erabiltzaileentzako ere zabaltzen dela da.

Ikastaroak

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak sorturiko Izenpe ziurtapen-erakundeak kudeatzen du HTE. Txartela eskatzeko udaletxean, udal liburutegian edo Abraham Olano kiroldegian egin daiteke. 16 urte baino gehiago dituztenek eskura dezakete, etorkizunean gazteagoek ere izatea posible izango bada ere. Horretarako nortasun agiria beharrezkoa da. Europako Batasuneko atzerritarrak AIZ eta indarrean dagoen identitate-agiri bat aurkeztu behar du eta Batasunetik kanpokoak egoitza-txartela erakutsi beharko du.

Txartela erabiltzen ikasteko ikastaroak egingo dira KZgunean urtean zehar. Komeni da ikastaroetara joan aurretik txartela eskatuta izatea. Ordubeteko ikastaroak izango dira eta lehenengo aukerak ondorengoak dira: martxoaren 29an, apirilaren 12an, apirilaren 26an eta maiatzaren 10ean. Ikastaroetako parte-hartzaileei irakurle digitala oparituko zaie.